

→hitz bat dagoenean. Esate baterako:

gazt. *voy a tu pueblo*

Perpaus honetan, «a tu pueblo» →sintagmari azentu bakarra dagokio:

a tu pueblo [atupwéblo]

eta «a tu» sekuentzia, *proklitiko* dela esan-go dugu.

Eusk. *ederki ikasi bait du* [baítú]

perpau-sean, era berean, *bait-* aurri-zkia *proklitiko* da.

Ik. ENKLITIKOA

Prolepsia

prolepsis / *prolepse* / *prolepsis*

Menpeko perpau-saren elementu bat hartu, eta perpau-s nagusian sartu: horra hor grezieraz *prolepsia* deitzen zuten →sintaxi-jokabidea. Hizkuntza hartan →zeharkako galde-perpau-saren →subjektua, *prolepsi* bidez, perpau-s nagusiaren osagarri zuzen bilaka daiteke.

→Etenaldi edo doinu-aldaketen bitartez, grezieraz normala zen sintaxi-bide hau, onargarri gerta daiteke beste hizkuntzetan.

Proparoxitonoa

proparoxitono / *proparoxyton* / *proparoxytone*

Hitz hau grezierari buruzko →azentu-mota bat adierazteko erabiltzen zen. Baina gaur beste hizkuntzetara ere hedatu da: eta azentua, atzetik hasi eta hirugarren →silaban duten hitzetan baliatzen da. Esate baterako: gazt. *catástrofe*, *ridículo*, hitzak, *proparoxitonoak* dira.

Propioa

propio / *propre* / *proper*

Aspaldidanik, bi multzotan berezi ohi dira izenak: izen →*erkideak* daude batetik (*katu*, *gizon*, *liburu*), eta izen *propioak* bestetik (*Kepa*, *Aralar*, *Bilbo*). Biketa hau, lehen filosofi bidez egiten bazen ere, gaur →banaketa-bidez aztertzen da izen *propioen* muga. *Katu hau*, *katu bat* esan daitezke; *Kepa hau*, *Kepa bat*, eskuarki bederen, ezin esan daitezke.

Proportziozkoa

proportional / *proportionnel* / *proportional*

Eman ditzagun euskararen →leherkariak: /p, t, k/ eta /b, d, g/. Sei fonema hauek, ozentasunari dagokionez (— ozen; + ozen) taxutuz gero, proportzio-segida hau dugu:

$$\frac{p}{b} = \frac{t}{d} = \frac{k}{g} = \frac{(\rightarrow \text{gor})}{(\rightarrow \text{ozen})}$$

Alegia, *p* eta *b* bereizten dituen →ezau-garriak «ozentasunik, ez» / ozentasunik, bai» dira. Eta gauza berbera gertatzen zaie beste bi bikoteei. Hori dela eta, *proporzio-tan* daudela esan dezakegu.

Proposizioa

proposición / *proposition* / *proposition*

→Aditz baten ondoan era daitekeen perpau-s bakunari *proposizio* deritzo: *gizona etxera joan zen*, esate baterako. Perpau-s batek, dena dela, bi *proposizio* izan ditzake; edo-ta *menpekoak*.

Logikaren mailan ere erabiltzen da *proposizio*-ideia.

Prosa

Ik. HIZLAUA

Prosodema

prosodema / *prosodème* / *prosodeme*

→Prosodi unitateari *prosodema* deritza, Batzutan →fonema baino txikiagoa den elementu bati datzekio (→mora, esate baterako); beste batzutan, berriz, fonema baino handiagoi (→morfema, hitza bera, perpau-sa). Prosodi elementuak hauek dira: *altuera* (→tonua eta →intonazioa), →*intentsitate* (→azentua esan ohi dena) eta *luzera*. Prosodemak ez dira inoiz beren buruz gertatzen: beti ere katea mintzatuko segmentu honi edo hari dagozkio. Bestetik, prosodemen artean ez dago bat ere barnetik, eta bere fisika-ezaugarrien bidez, zedarritza daiteke-enik: nahitaez, albo unitateen arabera funtsatzen dira denak. Intentsitateak balio →bereizlea duen hizkuntzetan, *prosodema* horren bitartez berezten dira hitzak. Bestetan, era berean, tonuari dagokionez, →silaben arteko altuera-mailak eta desberdintasunak dira kaxoa. Eta guztiz bide beretik, silaba laburrak eta silaba luzeak, elkarrekiko dira labur edo luzeak, eta ez berez.

Zenbait hizkuntzalariren ustez bide beretik, →adiera zabalagoa du *prosodema* hitzak: fonemen mugetatik at gertatzen diren gertakari foniko guztiei «osagai luze» (long components) deitzen diete. →Bokal-harmonia delakoa, esate baterako, *prosodematzat* daukate. Doinuak, bide beretik, betekizun adierazkorra izan dezake: perpau-sa zeinahi izanik ere, goranzko doinuak galdera-kutsua ematen dio. Prosodemak puntu berean egoki daitezke: intentsitatezko eta goratasunezko azentu-motak, esate baterako.

Prosodia

→Fonetika edo →Adierazpenaren zientziaren atal bat da Prosodia (ikus Fone-

tika-Fonologia sarrera-hitza); eta alderdi foniko segmentuaz gaindikoak edo osagai luzeak ikertzen ditu (edo «konkomitanteak» beste autore batzuren ustez).

Ikusmolde zabal batez, ondoko hau biltzen du Prosodiak:

- azentua;
- kantitatea;
- tonua;
- intonazioa.

Malmberg-en iritziz, →morfemaz gaineko unitateak ezaugarritzen dituzte prosodi elementuek: →sintagmak, perpau-sak, eta abar; eta haren →funtzio nagusia honetan datza: katean barrena unitateak mugatzea eta taldekatzea.

Beste autore batzuk →intonazioa eta beronen →aldaketak ikertzerantz biltzen dute prosodia; →azentua, →kantitatea eta →tonuak (zenbait aldiz «puntualak» deituak) maila segmental edo fonematiko delakora mugatuz.

Lehenengo aldian, fonetika bidez, eta ez bestez, aztertu zituen hizkuntzalaritza estrukturalak delako prosodi alderdi hauek. Martinet-ek idatzi duenez, horretara, →funtzio →bereizlerik ez, baina funtzio kontrastibo edo mugarrizaille soilak betetzen dituela.

→Jakobson-ek, bere aldetik, prosodi gertaeren izaera polarea azpimarratu du, haien egonaren beharraren mailatasuna; eta honek, dioenez, oso zailtzen du haien fonologi azterketa. Nolanahi ere funtzio bereizlea edo fonologikoa hartzea onartzen du. Hori dela eta, amerikar estrukturalistengandik hona, bai →fonemak, bai →prosodemak, alderdi funtzional gisa aipatzen dira.

Berrikiago, ingeles prosodi eskolara eta fonologia sortzaileak intonazioaren eta gainerako prosodi →ezaugarrien ikerketa birbalioztatu dute.

Euskararen prosodia oraindik gutxi landurik agertzen da.

J. R. Zubiaur
Itz.: Txillardegia

Protasia

prótasis / protase / protasis

Eman dezagun ondoko perpau hau:

Diru aski banu, etxe hori erosiko nuke.

Lehenengo →proposizioa bakarrik ematen bazaigu, aidean edo gelditzen zaigu segida, zain jarriko garelarik. Hori dela eta, *diru aski banu* parteari *protasia* deritzo; eta ondorioztat har daitekeen bigarren proposizioari, →*apodosia*.

Protesia

prótesis / prothèse / prothesis

Hitz mailegatueta gertatu ohi den fenomeno da hau. Eman ditzagun latinetikako bi →mailegu hauek:

lat. *spatha* eusk. *ezpata*

rota errota

→Etimologi bidez etorri ez diren *e* horiei, *protesi* deritze.

Psitazismoa

psitacismo / psittacisme / psittacism

→Hiztunak →hitzak esan bai, baina zer esaten ari den ez dakienean, *psitazismoa* dagoela esango dugu. Psitazismoa, beraz, mintzamina hondatzen duen eritasun berezi bat da.

Puntuala

puntual / ponctuel / punctual

→Ekintza bere garapenaren une batetan (→aoristoa), bere hasieran (→abiakaria) edo bukaeran (→burutua) hartuz adierazten duen →aspektuari esaten zaio puntuala.